

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

3651

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 27koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, kanpo-harremanen arloan gazteak prestatzeko beken deialdia egiten duena 2022-2023 aldirako.

Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuak arautzen ditu kanpo-harremanen arloan gazteak prestatzeko beka (2019ko otsailaren 1eko EHAA, 23. zk.).

Dekretu horren 5.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, bidezkoa da kanpo-harremanen arloan gazteak prestatzeko 2022-2023 aldirako beken deialdia egitea. Beka horiek Lehendakaritzaren 2022rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta daude; Lehendakaritzaren idazkari nagusiaren 2022ko otsailaren 9ko Ebazpenaren bidez onartu zen plan hori, 2022ko uztailaren 21ekoa Ebazpenaren bidez aldatu zen.

COVID-19aren pandemiaren egoera nabarmen hobetuenez, aurreko berriro deituko dira Euskadik Latinoamerikan eta Estatu Batuetan dituen ordezkarietarako beka.

Hori dela eta, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen xedea da hamabi beka ematea 2022-2023rako, kanpo-harremanen arloan gazteen prestakuntza bultzatzeko.

2. artikulua.– Beken modalitatea eta kopurua.

1.– Deialdiko beka honako modalitate hauetan banatuko dira:

a) Europako gaiak: lau beka.

b) Kanpoan den euskal komunitatea: lau beka.

c) Kanpo-harremanak: lau beka.

2.– Eskatzaile bakoitza deialdiko beka-modalitateetako bakar batera aurkeztu ahal izango da.

3. artikulua.– Destinoak.

1.– Europako gaien beken onuradunek destino hauetan gauzatuko dute beren jarduera:

a) Bi beka Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusian, Vitoria-Gasteizen.

b) Bi beka Euskadiren Europar Batasunerako Ordezkaritzan, Bruselan.

2.– Kanpoan den euskal komunitatearen beken onuradunek destino hauetan gauzatuko dute beren jarduera:

a) Bi beka Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusian, Vitoria-Gasteizen.

b) Beka bat Euskadiren Argentina-Mercosurreko Ordezkaritzan, Buenos Airesen.

c) Beka bat Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan, New Yorken.

3.– Kanpo-harremanen beken onuradunek honako destino hauetan gauzatuko dute beren jar-duera:

a) Bi beka Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, Vitoria-Gasteizen.

b) Bi beka Euskadiren Txile, Peru eta Kolonbiako Ordezkaritzan –bata Santiagon eta bestea Bogotan–.

4. artikulua.– Diru-zuzkidura eta ordainketa.

1.– Deialdiko beka-programaren kreditu osoa 288.000 eurokoa da; horietatik 144.000 euro 2022ko ordainketa-kredituei dagozkie, eta 144.000 euro 2023ko konpromiso-kredituei.

2.– Honako hau izango da beken diru-zuzkidura:

– Destinoa Vitoria-Gasteizen duen beka bakoitzeko, 16.000 euro gordin.

– Destinoa Euskadiren Europar Batasunerako Ordezkaritzan (Bruselan) duen beka bakoitzeko, 24.000 euro gordin.

3.– Jasotako zenbatekoak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Gizarte Segurantzaren araubidearen mende egongo dira.

5. artikulua.– Eskabideak aurkezteko modua eta epea.

1.– Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuan eskatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonen aurrez aurre edo bide elektronikoak erabiliz eskatu, kontsultatu eta egin ahal izango dituzte prozedura honen izapide guztiak.

2.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa telematikoki izapidetzeko zehaztapenak eskuragarri daude Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektroniko honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0073107>

3.– Eskabidea egiteko, behar bezala bete beharko da eskabide normalizatu bat, egoitza elektronikoko honetan eskuragarri dagoena: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0073107>

Eskabideak identifikatzeko eta sinatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokoan identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartutako bitartekoak erabili behar dira; helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

4.– Izapide elektronikoak ordezkari baten bidez egin ahal izango ditu eskatzaileak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Ahalordeen Erregistroan inskribatu beharko da ordezkari hori, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkaririk>

5.– Eskabidearen ondorengo izapideak, ebazpenen jakinarazpenak barne, bide elektronikoz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokoaren «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

6.– Eskabideak aurrez aurre aurkeztea aukeratuz gero, interesdunek egoitza elektronikoko honetan eskuragarri dagoen inprimaki-eredua bete beharko dute: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0073107>

Eskabideak posta helbide honetara bidali beharko dira, zein beka-mota nahi den adierazita:

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia.

Lehendakaritza – Eusko Jaurlaritza.

Nafarroa kalea 2 - 01007 Vitoria-Gasteiz (Araba).

Aurreko paragrafoan adierazitako idazkaritza nagusian ez ezik, Euskadiren Kanpoko Ordezkaritzetan eta Zuzenean-Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Arreta bulegoetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak. Zuzenean bulegoetan aurkezteko, hitzordua eskatu beharko da aldeztu aurretik <https://www.euskadi.eus/zuzenean-aurrez-aurreko-arreta/web01-a2zuzen/eu/> helbidean, edo, bestela, 945 01 90 00 telefono eskusiboaren bidez –aldeztu aurreko hitzordua eskatzeko edo balio gabetzeko aukera dago telefono hori erabilita–. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan ere aurkeztu ahal dira eskabideak.

Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzak horretarako daukan datu-basean agertu beharko du onuradunak.

Alta emateko edo hirugarrenaren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarrenaren erregistro elektronikora jo beharko du interesdunak, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuaren-aldaketa/web01-tramite/eu/>

Ebazpenen jakinarazpen elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

7.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetako akatsak zuzentzea.

1.– Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, dokumentazioa osorik ez badago, beka-modalitate bakoitzaren instrukzio-organismoak hamar eguneko epea emango dio eskatzaileari dokumentazio osagarria bidal dezan.

2.– Epe hori igarota, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, dokumentuak aurkeztu ez badira, eskabideari uko egiten diola ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusten diren baldintzetan ebazpena eman eta gero.

7. artikulua.– Hautaketa Batzordea.

1.– Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 11. artikuluan aipatzen den hautaketa-batzordea, merezimenduak baloratuko dituen, honako pertsona hauek osatuko dute:

– Myriam Larroulet Rotaèche, Kanpo Harremanetarako zuzendaria; batzordeburua izango da. Kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, Estibaliz Urcelay Erguido Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak ordezkatuko du.

– Mikel Antón Zarragoitia, Europako Gaietarako zuzendaria. Kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, Rafael Hueso Vicent Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak ordezkatuko du.

– Gorka Álvarez Aramburu, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendaria. Kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen

bada, José Manuel Meaurio Antón Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak ordezkatu du.

– Elena Iturrate Bizkargüenaga, Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikaria; batzordeko idazkari-lanak egingo ditu. Kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, Loreto Guzmán Fonquernie Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak ordezkatu du.

– Ainara Jauregi Rekondo, Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikaria. Kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, Eloisa Susaeta Azcoitia Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak ordezkatu du.

– Benan Oregi Iñurrieta, Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikaria. Kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, Andoni Martín Arce Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak ordezkatu du.

2.– Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 11.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hautaketa-batzordeak Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiko aholkulari Concepción Quintana Aguirreren aholkularitza izango du. Aholkulari horrek hitza izango du, baina botorik ez.

8. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

1.– Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoak dira balorazio-irizpideak.

2.– Gehienez 15 puntu emango dira pertsonaren profil akademikoa, zeina nazioarteko harremanen arloan dituen ezagutzek eta esperientziak zehaztuko baitute, bekaren edukirako egokia bada. Horretarako, proba idatzi bat egingo da, aldeztatik adierazitako lekuan eta egunean; eskatzaile bakoitzak emandako helbide elektronikoaren bidez jakinaraziko dira horiek.

9. artikulua.– Probaren modalitateak.

Izangaiek proba idatzi bat egingo dute: 15 galderako test bat, aukeratzen duten beka-modalitatera egokitua. 30 minutu izango dituzte proba hori egiteko. Galdera guztiek puntuazio bera izango dute, eta 15 puntu emango dira gehienez, honela banatuta:

a) Modalitatea: Europako Gaiak.

– 5 galdera, Europar Batasunaren erakunde-esparruari buruzkoak.

– 5 galdera, Europako gaurkotasun politikoari buruzkoak.

– 5 galdera, Europako gaurkotasun ekonomikoari buruzkoak.

b) Modalitatea: kanpoan den euskal komunitatea.

– 5 galdera, euskal etxeen esparruari buruzkoak.

– 5 galdera, euskal emigrazioaren memoria historikoari buruzkoak.

– 5 galdera, euskal diasporarako erakunde-programei buruzkoak.

c) Modalitatea: kanpo-harremanak.

– 5 galdera, organismo multilateralei buruzkoak.

– 5 galdera, nazioarteko gaurkotasun politikoari buruzkoak. Ez da Europari buruzko galderarik egingo.

– 5 galdera, nazioarteko gaurkotasun ekonomikoari buruzkoak. Ez da Europari buruzko galderarik egingo.

10. artikulua.– Txostenak.

1.– Bekadunek txosten partzial bat aurkeztu beharko dute, urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 16.2.j) artikuluan aurreikusitako ikerlanaren garapenaren egoera zehazten duena, bai eta azken txosten zehatz bat ere, aztertutako gai, planteatzen dituzten arazoei, balizko irtenbideei eta, oro har, bekarekin lotutako alderdi interesgarri guztiei buruzkoa.

2.– Txosten partziala bigarren ordainketa jaso aurretik aurkeztu beharko da, eta, nolana ere, beka baliatzeko laugarren hilabeteko azken eguna baino lehen.

3.– Beka baliatzeko hamaikagarren hilabetea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da amaierako txosten zehatua.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Xedapen hauek ezarritakoaren mende daude ebazpen honek aipatzen dituen laguntzak: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak eta kanpo-harremanen arloan gazteak prestatzeari buruzko urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke organo berari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Guztiek jakin dezaten, www.euskadi.eus webgunean ere argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 27a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,
MARÍA ÁNGELES ELORZA ZUBIRÍA.

ERANSKINA

ESKABIDE-EREDUA

Izen-abizenak:

NAN / pasaporteak:

Helbidea:.....

Posta elektronikoa:

– Ofizialki onartutako euskal etxeen bazkideen kasuan:

Euskal etxearen identifikazioa:

Euskal etxean duen bazkide-zenbakia:

– Bekaren modalitatea (beka-modalitateetako bakar batera aurkeztu ahal izango da):

Europako Gaiak

Kanpoan den Euskal Komunitatea

Kanpo Harremanak

– Zein destinatora aurkezten den:

1) Europako Gaietarako beken modalitatea:

Vitoria-Gasteiz

Brusela

Paris

2) Kanpoan den Euskal Komuniteterako beken modalitatea:

Vitoria-Gasteiz

Buenos Aires, Argentina

New York, EEUU

3) Kanpo Harremanetarako beken modalitatea:

Vitoria-Gasteiz

Santiago, Txile

Bogota, Kolonbia

– Goi-mailako edo graduko unibertsitate-titulua:

– Ikastaroak (50 ordu gutxienez):

– Hizkuntzak:

Euskara: (*)

Egiaztatutako maila: B2 C1 C2

(*) Euskararen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko hizkuntza-tituluak eta -ziurtagiriak aurkeztetik salbuetsita egongo dira 47/2012 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoa betetzen dutenak (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aitortzekoa eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuestekoa).

Ingelesa:

Egiaztatutako maila: B1 B2 C1 C2

Beste hizkuntza batzuk:

Egiaztatutako maila: B1 B2 C1 C2

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO TITULUAK

- NAN edo pasaporteak.
- Errola-ziurtagiria, 2022ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dela egiaztatzen duena / Euskal etxearen ziurtagiria, 2022ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik bazkide dela egiaztatzen duena.
- Goi-mailako edo graduko unibertsitate-titulua eta, hala badagokio, dagokion homologazioa.
- Curriculum vitae, espediente akademikoa erantsita.
- Egindako ikasketen ziurtagiriak, zeinak ofizialak eta balio akademikodunak izango baitira.
- Hizkuntzen ziurtagiriak, zeinak ofizialak eta balio akademikodunak izango baitira.
- Medikuziurtagiria, egitekoak eta betebeharrak ongi betetzea galarazten dion gaixotasunik ez duela zehazten duena.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatuarekin bat, beka-modalitate bakoitzari dagokion instrukzio-organoak kontsultatu edo eskatu ahal izango du Kanpo Ekintzaren arloan gazteak prestatzeko beka arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 8.3 a), b), c) eta e) artikuluan adierazitako dokumentazioa, dagozkion elkarreragingarritasun-zerbitzuen bitartez.

Administrazioak zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak betetzeari buruzko datuak kontsultatu edo bildu ditzan, markatu dagokion aukera:

BAI, baimena ematen dut modalitate bakoitzari dagokion instrukzio-organoak zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak betetzeari buruzko datuak kontsultatu edo bildu ditzan.

EZ, ez dut baimenik ematen modalitate bakoitzari dagokion instrukzio-organoak zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak betetzeari buruzko datuak kontsultatu edo bildu ditzan.

ADIERAZTEN DUT betetzen ditudala Kanpo Harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako eskakizunak.

ADIERAZTEN DUT egiazkoa dela eskabidean, curriculum vitaean eta eskabideari erantsitako gainerako dokumentuetan agertzen den informazioa, eta errealitateari erantzuten diola.

ADIERAZTEN DUT lehendik jaso ez izana beka horiek edo unibertsitate-ikasketadunei bideratutako beste prestakuntza-beka batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretatik.

ADIERAZTEN DUT ez dudala dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko zehapen administratibo edo penalik, ezta horretarako gaitasuna kentzen didan lege-debekurik ere, eta bereziki sexu-bereizkeria dela-eta jarritakoak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenak adierazten duenarekin bat etorritik.

Lekua eta data

Sinadura

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), datu pertsonalen tratamenduan eta datu horien zirkulazio askean pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (datuak babesteko erregelamendu orokorra) eta datuen babesari buruz indarrean diren gainerako arauak betetzeko, jakinarazten da «Kanpo-harremanen arloko prestakuntza-bekak» izeneko tratamendu-jardueretan sartuko direla datu pertsonalak.

Arduraduna:

Kanpo Harremanetarako idazkaritza nagusia, Lehendakaritza.

Nafarroa kalea 2, 01007 Vitoria-Gasteiz.

Telefona: 945017900.

Datuak babesteko ordezkaria:

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Telefona: 945 018511.

Helb. el.: dpd-dbo@euskadi.eus

Helburua: Kanpo Harremanetarako idazkaritza nagusiak egindako beka-deialdietan parte hartu dutenei buruzko informazio pertsonala kudeatzea.

Datuak gordetzeko epea: Datuak biltzeko helburua betetzeko eta egon daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denbora. Artxiboari eta dokumentazioari buruzko araudian ezarritakoa aplikatuko da.

Legitimazioa:

– Beharrezko tratamendua interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Interesdun-taldeak: Bekak esleitzeko prozeduretan parte hartzen duten pertsonak.

Hartzaileak: Interes legitimoa duenari eta gizarte-segurantzako eta ogasun publikoko eta zerga-administrazioko erakundeei eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

Eskubideak: Eskubidea duzu zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeke, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko ere.

Informazio gehigarria:

Gure webgunean kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia:
<https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/> eta
<https://www.euskadi.eus/ac34aRatWebWar/control/fichaRat/1417?locale=eu>

....., 20...(e)koren(a).

Eskatzailearen edo haren ordezkariaren sinadura